



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko ekainaren 6an

47 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzekoa, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak aurkeztua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legea aldatzekoa, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak aurkeztua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Kanpo Arazoetako Ministerioa premiatzen da gerra zibilaren ondorioz erbestera jo zutenen datuak eman ditzan, kalte-ordainak jaso ahal izateko, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Orkoiengo saihesbidea egitea aurreratu dezan, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakurketa publikoko mapa bat aurkez dezan, liburutegietako baliabideak antolatzeko. Hezkuntza eta Kultura Batzordean izapidatzea (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurrentzako parke publikoak arautzeari buruzko Foru Lege proiektu bat aurkez dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordean izapidatzea (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresetan drogamenpekotasunari aurrea hartzeko plan bat egin dezan, Osasun Batzordean izapidatzea (11. or.).
- “Gure konpromisoa: berdintasuna” manifestuari atxikitzearen berrespena (12. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Babes ofizialeko etxebizitzak deskalifikatzeko eskatu duten pertsonen buruzko galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egin (13. or.).

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kreditazio-sistemei buruzko galdera, Elena Torres Miranda foru parlamentari andreak egina (14. or.).
- Eguesko Udalarekin Sarrigurengo ekohiria sortzearen lortutako akordioa betetzeko sistema aldatzerari buruzko galdera, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak egina (14. or.).
- Herri ondasunak arautzeko egungo sistemari buruzko galdera, Carolina Castillejo foru parlamentari andreak egina (15. or.).
- Aurrekontuko dirulaguntzak jaso ez dituzten hezkuntza, osasun eta gizarte ongizate alorreko elkarterei buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentari andreak egina (16. or.).
- Jateko ohituren nahasketari –anorexia eta bulimia– buruzko galdera, Elena Torres Miranda foru parlamentari andreak egina (17. or.).
- Nafarroako Gobernuaren argitalpenen fotokonposizio eta filmazio lanen (1, 2, 3, 4 eta 5. sortak) esleipenari buruzko galdera, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak egina (18. or.).
- Altsasuko Galdan, SA enpresak isuritako ke toxikoei buruzko galdera, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina (18. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 54 eta 75. artikulua aldatzeko proposamena. Erregelamenduko Batzordeak onetsitako irizpena (20. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko XIII. tituluko I. kapitulua aldatzeko proposamena, Erregelamenduko Batzordeak onetsitako irizpena (21. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legeak Natur Parke deklaratu zuen Nafarroako Errege Bardeak

hartzen duen lurraldea, baina babes figura horretatik kanpo geratu zen, besteak beste, tiro poligonoren erabilera bereziko eremua, 2.244 hektarea hartzen dituena.

Lege hartako zioen azalpenean esaten da komenigarria dela tiro poligonorako gordetako eremuan burutzen ari den erabilera eta jarduera berraztertzea.

Aipatu erabilera arautzen duten harreman juridiko indardunak laster bukatuko direnez, Errege Bardearen ingurumena guztiz zaintzeko eta apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legearen xedea, ingurumena babestea alegia, lortzeko, 10/1999 Foru Legea aldatu beharra dago.

Artikulua

1. Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legeko 1. artikulua beste modu batera idatziko da. Hona:

Natur Parke deklaratzeko duen Nafarroako Errege Bardeak hartzen duen lurralde osoa. Babes figura horretatik kanpo geratzen dira honako erabilera bereziko eremuok: Hondo de Espartosa (272 ha.), Bandera (43 ha.) eta Cinco Villas (13 ha.). Natur Parkearen mugak, 1998ko edizioeko Nafarroako 1:5.000 Mapa Topografikoaren arabera, honakoak dira: (hemendik aurrera, legean datorren legez).

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio, foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek 2001eko ekainaren 10eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Kontuan hartuz Errege Bardearen zati bat tiro poligono bezala erabiltzea arautzen duten harre-

man juridiko indardunak heldu den urtean bukatuko direla eta gure erkidegoko botere publikoek behin eta berriro azaldu dutela Errege Bardea osoaren ingurumena guztiz zaintzeko borondatea.

Kontuan hartuz hainbat erabilera bateraezinak direla Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeak babestutako eremuetan, aipatu legeko 18. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko proposamena egin dugu.

1. artikulua. Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeko 18. artikuluko 4. idatz-zatia beste modu batera idatziko da. Hona:

4. Guztiz debekaturik dago babestutako naturgunearen mugetatik 2.000 metro baino gutxiagora jardura militarrek garatzea, bai eta, edonola ere, militarrek pasatzea lurretik zein airetik naturgunetik 15.000 metroko altuera baino beherago.

Debekaturik dago merkataritza izaerako publizitate xede duten instalazio higigaitzak jartzea babesten den naturguneen mugetatik 500 metro baino hurbilago. Hurrengoak baimendu ahalko dira: geografiari, bideei, ingurugiro ikerketa eta hezkuntza instalazioei edo gizartearendako interesgarri direnei buruzko informaziorako elementuak.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio, foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiari buruzkoa

AURREKARIAK

Nafarroako Parlamentuaren martxoaren 23ko Osoko Bilkurak Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak proposaturiko mozio bat onetsi zuen, zeinaren bitartez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua era zezan. Ondoko egunetan, zenbaitek interpretatu zuen testu hura Gobernuari emandako mugarik gabeko baimen bat zela, testuak ez zuelako zehazten zein eredutakoa izanen zen proposaturiko Ikus-entzunezkoen Kontseilua, eta hori eratzerakoan Gobernuari inolako mugarik ezartzen ez zitzaiola uler zitekeelako.

Hori saihesteko, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiari buruzko beste mozio bat aurkeztu zuen gero, Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozio horren bitartez, aipaturiko kontseilua taxutzeari Nafarroa-

ko Gobernuak aplikatu beharreko arauak onestea proposatzen da.

Hizpide dugun gaien Nafarroako Parlamentuaren jarrera –zeina oso garrantzitsua baita, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen iritziz, informazioaren gizarteak Nafarroan izanen duen etorkizunerako– osatzeko, komenigarria dirudi legez arautzea prozesu horren garapeneri buruz datozen urteetan erabakiak hartzeko moduaren funtsezko elementuak, ez baitaigu egoki iruditzen horiek Nafarroako Gobernuak soilik lantzea. Izan ere, Gobernu orok arlo honetan hartzen dituen erabakiek mesfidantza eragiten dute, baldin eta erabaki horiek prozedura erabat garden eta gizarteak nahiz Parlamentuak kontrolaturikoei jarraituz hartzen ez badira.

Agerturiko beharrizan hori asetzeko, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiari buruzko Foru lege Proposamen hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuak onets dezan.

ZIOEN AZALPENA

Gure Komunitatean Ikus-entzunezkoen eredia garatzearekin zerikusia daukaten gaiek –bereziki, telekomunikazio-seinaleak eta teknologia berriak eskuratzeko modu berrien aplikazioaren berehalako garapeneri dagozkionek– eta, bestalde, horri buruzko erabaki estrategikoak nork hartzen dituen finkatzeari buruzkoek, izugarrizko eragina daukate gure Komunitatearen bizitza sozial eta ekonomikoaren etorkizunean, bere garapen-aukeretan eta teknologia berrien eskutik datorren modernizazioa eskuratzeko duen moduan.

Gure Komunitateak ikus-entzunezkoen arloan duen etorkizunari loturiko orok duen garrantzi sozial eta ekonomiko eta, beraz, politikoaren ondorioz, kezka nabarmena sortu da, azkenaldi honetan, ikus-entzunezkoen arloan Nafarroako gaur egungo Gobernuak bere kabuz har ditzakeen erabakien eragina dela-eta; izan ere, gure Komunitatearen etorkizuna Nafarroako Parlamentuko gehiengoak –eta, beraz, gizartekoak– nahi ez duen moduan baldintzatu dezakete erabaki horiek.

Horregatik, Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du legez eratzea Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusia. Ikus-entzunezkoen arloan Nafarroako Foru Komunitateko botere publikoen arauketaren edo eskuhartzearen xede diren gai guztietan herritarrek parte hartzeko

tresna izanen da aipaturiko kontseilu hori, eta bere eginkizunek ikus-entzunezko arloarekin zerikusia daukaten eta Nafarroako Administrazio Publikoen eskumeneakoak diren edo izan litezkeen gaur egungo eta etorkizuneko egoera guztiak barne hartuko dituzte; baita kontrol- eta jarraipen-lanak ere.

Lege Proposamen honen arabera, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak bere gain hartuko dituen eskumenen edukiak izan behar du, besteak beste, beharrezkoak diren ekintzak eta urratsak burutzea honako hauek kasu guztietan bermatzeko: programazioaren kalitatea, informazioaren aniztasun eta objektibotasuna, pertsonen duintasunarekiko begirunea eta konstituzio-eskubide guztien eraginkortasuna, bai titulartasun publikoko ikus-entzunezko komunikabide guztietan bai eta, zuzeneko kudeaketakoak ez izanik, administrazio-baimen edo -kontzesio batean oinarrituz emititzen dutenetan edo alegaltasunaren, onarturiko arauz bestelakotasunaren nahiz arau-hutsune baten ondoriozko egoera bat tartean dela emititzen dutenetan ere.

Halaber, Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiaren helburu izanen da behar adina ekintza eta urrats burutzea Konstituzioaren hastapenak, Foru Hobetzean jasotakoak eta Nafarroako Foru Komunitateko errealitate instituzionala eta aniztasuna defendatzeari dagozkionak defendatu eta babesten direla bermatzeko.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusia zuzenbide publikoko ente bat da, eta nortasun juridiko berekia, Administrazio Publikoekiko independentzia, erabateko gaitasuna eta bere eginkizunak betetzeko autonomia organiko eta funtzionala ditu.

Bereziki aipatzekoa da 9.2 artikulua espreski baieztatzen duela Kontseiluaren kontratu-jarduerari Nafarroako Foru Komunitatean kontratuak arautzen dituen legedia aplikatuko zaiola.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiaren osaketari dagokionez, kide batzuk Nafarroako Parlamentuak proposatuko ditu; beste batzuk, Gobernuak; beste batzuk, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak; beste batzuk, erabiltzaile eta kontsumitzaileek, eta beste batzuk, ikus-entzunezkoen sektoreak. Bai Nafarroako Parlamentuak proposaturiko kideak bai Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposaturikoak ikus-entzunezkoen, kulturaren, unibertsitatearen eta elkartearen alorretan lanbide-merezimendu nabarmenak dituzten pertsonen artean hautatu beharko dira, halako moldez non Nafarroako gizartean dagoen aniztasun ideologikoa erakutsiko den.

1. artikulua.- Izaera eta xedea

1.- Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusia eratuko da. Nafarroako Gobernuaren organo aholku-emaile, exekutibo eta kontsultarako da, Foru Hobetzeko 55.1 artikuluan aurreikusitakoak berez dakarren garapen legegintzako eta exekutiboari dagozkion eginkizunetan.

2.- Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari atxikirik egonen da Kontseilua.

3.- Kontseiluak autonomia organiko eta funtzionala izanen du bere eginkizunak betetzeko.

2. artikulua.- Osaketa

1.- Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusia osatuko dute Lehendakariak –honen eskuetan egonen da Kontseiluaren legezko ordezkariak– eta frogaturiko gaitasun tekniko eta lanbidekoa daukaten pertsonen artean Nafarroako Gobernuak izendatuko dituen 17 kidek.

2.- Lehendakaria eta lau kide Nafarroako Parlamentuak proposatuko ditu; Nafarroako Gobernuak bi kide proposatuko ditu; Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, hiru kide; Nafarroan hedadura handienekoak diren kontsumitzaile-elkarteak, sindikatuak eta irrati-entzuleen edo telebista-ikusleen elkarteak, lau kide; eta, gainontzeko lau kideak, Nafarroako ikus-entzunezkoen arloan ordezkariak zabalena daukaten elkarteak.

3.- Kontseilukideen agintaldiaren iraupena Nafarroako Parlamentuaren legegintzaldiaren arabera izanen da. Legegintzaldia bukatu ondoren, Kontseiluak jardunean segituko du harik eta kide berriek beren karguen jabetza hartu arte.

4.- Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiko kideen postuak honako kasu hauetan geratuko dira hutsik:

- Norberak eskatu badu.
- Bateriaezintasunen bat badute.
- Euren agintaldia amaitzeagatik.
- Heriotzaren ondorioz.

3. artikulua.- Nafarroako Parlamentuak izendaturikoen izendapena eta kargu-uztea

1.- Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiaren Lehendakaritzarako hautagai bat proposatuko du. Hautagai horrek, Parlamentuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordean, bere jardura-programa azalduko du eta Parlamentuak izendaturiko kontseilukide izateko hautagaiak aurkeztuko ditu.

2.- Izapide hori egin ondoren, Parlamentuko Osoko Bilkurak gehiengo osoz onetsiko du Lehendakariari eta Parlamentuak izendatu beharreko lau kideei buruzko proposamena.

3.- Horrela izendaturiko kontseilukideek kargua utziko dute aurreko artikuluan ezarritako kasu orokorretan, eta horren ondorioz hutsik geraturiko lanpostua betetzeko Parlamentuko Lehendakariak proposamen bat egingen du, zeinak lehen adierazitako izapideak arruntetik igaro beharko baitu.

4. artikulua.- Bateriaezintasunak

1.- Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiko kideak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari goi-karguei aplikatzeko den legeak ezarritako bateriaezintasun-araubideari lotuta daude.

2.- Kontseilukideen agintea bateriaezina da, bereziki, ikus-entzunezkoen arloko edo horrekin zerikusia duten arloetako enpresa edo bestelako organismoetan eginkizunak betetzearekin edo horietan interesen titular izatearekin.

5. artikulua.- Eginkizunak.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiaren eginkizunak honako hauek izanen dira:

- Indarreko legedian ikus-entzunezko zerbitzuak eman ahal izateko aurreikusitako lizentziak ematea.

- Nafarroako Parlamentuari eta Gobernuari aholkuak ematea, alde batetik, ikus-entzunezkoen sistemari buruzko legediarekin eta araudiarekin zerikusia daukaten gaiei dagokienez, eta, bestetik, sistema horrek teknikaren eta lurraldearen ikuspegitik dauzkan modalitate guztietan dituen egoerari eta aurreikuspenei dagokienez.

- Foru Lege proiektuei eta izaera orokorreko xedapenei buruzko iritzia agertzea, nahitaez.

- Telebista- edo irrati-zerbitzuen kudeaketa zuzenean edo besterekin partekatuz burutzeko Nafarroako Foru Komunitateak abiarazi nahi izan litzakeen proposamenei buruzko iritzi loteslea ematea.

- Nafarroako Administrazio publikoek komunikabideekin sinatu nahi izan litzaketen akordio eta hitzarmenei buruzko iritzi loteslea ematea, baldin eta, akordio edo hitzarmen horien bitartez, komunikabideek zuzenean edo zeharka laguntza edo dirulaguntza publikoak jasoko badituzte.

- Nafarroako Administrazio Publikoen eta komunikabideen arteko lankidetzak-akordioak kontrolatu eta horien jarraipena egitea.

- Komunikabideetan dagoen erakunde-publizitatearen kantitatea kontrolatu eta horren jarraipena egitea.

- Nafarroako Parlamentuari urtero ikus-entzunezkoen sistemaren garapenaren berri ematea, haren edukietan arreta berezia jarritz.

- Telebista-ikusleen, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen herritar-elkarteen eskaerak eta kexuak jaso eta sektore horiekin harreman jarraia eta arina izatea.

- Iragarriak eginarazten dituztenei eta ikus-entzunezkoen alorreko enpresei legez kanpoko publizitatea, nahasmena eragiten duena nahiz iruzur egiten duena ken edo zuzendu dezaten eskatzea.

- Botere publikoen eta komunikabideen aurrean beharrezkoak diren ekintzak eta urratsak burutzeko honako hauek kasu guztietan bermatzeko: programazioaren kalitatea, informazioaren aniztasun eta objektibotasuna, pertsonen duintasunarekiko begirunea eta konstituzio-eskubideen eraginkortasuna, bai titulartasun publikoko ikus-entzunezko komunikabide guztietan bai eta, zuzeneko kudeaketakoak ez izanik, administrazio-baimen edo -kontzesio batean oinarrituz emititzen dutenetan edo alegaltasunaren, onarturiko arauz bestelakotasunaren nahiz arau-hutsune baten ondoriozko egoera bat tartean dela emititzen dutenetan ere.

- Halaber, behar adina ekintza eta urrats burutzeko Konstituzioaren hatsapenak, Foru Hobetzean jasotakoak eta Nafarroako Foru Komunitateko errealitate instituzionala eta aniztasuna defendatzeari dagozkionak defendatu eta babesten direla bermatzeko.

- Nafarroako Parlamentuari Nafarroako Irrati eta Telebistako Zuzendari Nagusia izateko hautagaia proposatzea, izenda dezan.

- Nafar herritarrek ikus-entzunezko emisioak eskuratzeari dagokionez unibertsaltasuna bermatzea.

6. artikulua.- Ahalmenak

Bere eginkizunak bete ahal izateko, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiak honako ahalmen hauek izanen ditu:

- Behar duen informazioa Nafarroan dagoen Administrazio Publiko bakoitzari eta ikus-entzunezko zerbitzuak ematen jarduten dutenei eskatzea, eta euren instalazioak ikuskatzea.

- Legeak beteko direla bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea.

- Publizitateari buruzko Lege Orokorri jarraituz, legez kanpoko publizitate-emisioak zuzendu edo kentzeko behar diren urratsak ematea.

7. artikulua.- Urteko txostena

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiak urtero txosten bat egingen du. Txosten hori Nafarroako Parlamentuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordean aurkeztuko du, eta ikus-entzunezko zerbitzuen bilakaerari, Kontseiluak buruturiko ekintzei eta zerbitzu horien garapen orratua errazteko egoki jotzen dituen iruzkin eta proposamenei buruzkoa izanen da.

8. artikulua.- Jarduna

Kontseiluaren antolaketak eta jardunak Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztindako Administrazio Prozedurari buruzko Legeak organo kolegiatuetarako xedaturikoa beteko dute.

9. artikulua.- Araubide ekonomiko eta finantzarioa

1. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiak izanen dituen baliabideak Nafarroako Aurrekontu Orokorretan horretarako finkaturikoak izanen dira.

2. Kontseiluaren kontratu-jarduera Nafarroako Administrazio Publikoei aplikatzekoa den kontratuei buruzko legediak arautuko du.

3.- Kontseiluaren gaineko kontrol ekonomiko eta finantzarioa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarako ezarritakoari jarraituz burutuko da.

Azken xedapenak

Lehena.- Nafarroako Gobernua baimentzen da Foru Lege honek indarra hartu ondoko hiru hilabete epean hura garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Bigarrena.- Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusia Foru Lege honek indarra hartu eta ondoko sei hilabeteetan eratuko da.

Hirugarrena.- Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiak antolaketari eta jardunari buruzko Erregelamendu bat onetsi ahalko du. Erregelamendu hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Laugarrena.- Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Kanpo Arazoetako Ministerioa premiatzen da gerra zibilaren ondorioz erbestera jo zutenen datuak eman ditzan, kalte-ordainak jaso ahal izateko

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Kanpo Arazoetako Ministerioa premiatzen da gerra zibilaren ondorioz erbestera jo zutenen datuak eman ditzan, kalte-ordainak jaso ahal izateko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiki baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Nafarroaren historian bada duela gutxiko errealitate triste bat behar bezala ezagutzen ez dena. Gerrate Zibilaren ondoren atzerrira jo behar izan zuten hainbat nafarren esperientziaz ari gara. Nafar horiek atxilotu –batzuk erail– eta nazien kontzentrazio-kanpoetan sartu zituzten. Alegia, beraien ideiegatik agintari frankistengandik ihes egin behar izan zuten, eta ondoren, nazien eskuetan erori ziren. 1941ean iritsi zen nafar kopuru

handiena, beste espainiar batzuekin batera, Frantziako kontzentrazio-kanpoetatik Mauthausen eta Gusen-eko nazien kontzentrazio-kanpoetara. Benetako esklaboen lana egin zuten eta batzuk kolpeka, torturatuta edo gas kameratan erail zituzten. Hogeiren bat nafar gasarekin hil zituzten; Mendabia, Altsasu, Ribaforada, Andosilla, Noain, Pitillas, Iruña, San Martín, Lizarra, Monteagudo, Uztarroze, Urrotz, Castejón eta Cintruénigokoak ziren.

Agerikoa izan zen agintari frankisten pasibotasuna, haien nazionalitateari entzungor eginez babesa ukatu baitzieten. Duela gutxi, Estatu alemaniarrek eta austriarrak kontzentrazio-kanpo haietako biktimentzako kalte-ordainetarako prozesuak ireki dituzte.

Horregatik, Nafarroako Gorteek

– Beraien miresmena adierazten diete pertsona horiei, faxisten krudelkeriaren ondorioz beraien bizitzetan pairatu zituzten gorabeherak direla-eta. Halaber, beraien ideiegatik esetsiak edota sarraskituak izan ziren horiekiko errespeturik handiena erakusten dute.

– Nafar horien memoria eta lorratza aitortzen dute.

– Kanpo Arazoetarako Ministerioa premiatzen dute herritar horiek edota horien oinordekoek kalte-ordainak krobatu ahal izateko beharrezko kudeaketak egin eta horretarako bide egokiak ezar ditzaten.

– Erabaki hau Kanpo Arazoetarako Ministerioari igorriko zaio.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 19an.

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Orkoiengo saihebidetza egitea aurreratu dezan

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Orkoiengo saihebidetza egitea aurreratu dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Herrilan eta Azpiegitura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritako arekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Herrilan eta Azpiegitura Batzordean eztabaidatzeko:

Herrilan zuzendari nagusiak 502/1998 Ebazpena eman zuen 1998ko maiatzaren 5ean. Haren bidez, "Navarra de Suelo Industrial, SA (NASUINSA)" enpresari eman zitzaion NA-7000 errepedeko Orkoiengo saihebidetza proiektua egiteko lana.

Zuzendari nagusiak ebazpenean azaltzen zenez, Iruñeko iparraldeko eta mendebaldeko ingurubideak eta Etxauritik barrena Iruñetik Lizarrara doan errepedeak mugatzen dute inguru hori, eta bertan, zenbait industrialde ari dira sustatzen: horietako bat –Volkswagenen instalazioen ondo-

an, Aratzuri-Orkoiengo indutri eremua izenekoa eta 859.122 metro koadrokoa– Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak sustatzen du, eta bestea –Orkoiengo industrialde berria izenekoa, 118.625 metro koadrokoa–, berriz, Udalak.

Zuzendari nagusiaren esanetan, industrialde horiek sortutako trafikoak kalte handia ekar diezaioketen NA-7000 errepedeak Orkoiendik barrena egiten duen bideuneari, eta hortaz, beharrezkoa zen aipatu saihebidetza egitea.

Horrela, bada, "Navarra de Suelo Industrial, SA (NASUINSA)" enpresak NA-7000 errepedeko Orkoiengo saihebidetza proiektua egin zuen eta 475.275.511 pezetako aurrekontua aurkeztu zuen obra egiteko (BEZa barne).

Nafarroako Gobernuak esan du ez daukala Orkoiengo zeharbideko trafiko dentsitateari buruzko datu fidagarririk, baina batez beste egunean 7.000 bat ibilgailu pasatzen direla dio.

Halere, trafiko dentsitateari begira – industrialdeek sortutako trafiko pisuari begira batik bat– saihebidetza egiteko premia larria den arren, 2005 arte ez dela eginen aurreikusten da.

Horregatik guztiagatik, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du 2001 ekitaldira aurreratu dezan NA-7000 errepedeko Orkoiengo saihebidetza egitea, eta horretarako beharrezkoa den dirua jar dezan Nafarroako 2001 urteko aurrekontu orokorretan.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 19an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakurketa publiko mapa bat aurkez dezan, liburutegietako baliabideak antolatzeko

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAN IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakurketa publikoko mapa bat aurkez dezan, liburutegietako baliabideak antolatzeko". Mozio hau Osoko Bilkuran izapidetu behar zen,

eta Hezkuntza eta Kultura Batzordean izapida dadin agintzen da. Mozio hori 2000ko apirilaren 3ko 29 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurrentzako parke publikoak arautzeari buruzko Foru Lege proiektu bat aurkez dezan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAN IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurrentzako parke publikoak arautzeari buruzko Foru Lege proiektu bat aurkez dezan". Mozio hau Osoko Bilkuran izapidetu

behar zen, eta Hezkuntza eta Kultura Batzordean izapida dadin agintzen da. Mozio hori 2000ko apirilaren 3ko 29 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresetan drogamenpekotasunari aurrea hartzeko plan bat egin dezan

OSASUN BATZORDEAN IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Gobernua enpresetan drogamenpekotasunari aurrea hartzeko plan bat egin dezan premiatzen duen mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta Osoko Bilkuran izapidetu behar

zena, Osasun Batzordean izapidatzeko agintzea. Mozio hori 2000ko maiatzaren 23ko 42 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

“Gure konpromisoa: berdintasuna” manifestuari atxikitzearen berrespena

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2000ko maiatzaren 18an eginiko bileran, “Gure konpromisoa: berdintasuna” manifestuari atxikitzea berretsi zuen. Manifestu honen testua 2000ko apirilaren 27ko 36 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Babes ofizialeko etxebizitzak deskalifikatzeko eskatu duten pertsonen buruzko galdera

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Babes ofizialeko etxebizitzak deskalifikatzeko eskatu duten pertsonen buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galderak egin ditu, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun diezazkion:

1999ko abenduan babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) deskalifikatzea lortu edo deskalifikatzeko eskatu zutenei buruz Parlamentuko talde honi eman zaion informazioa ikusita, eta kontuan izanda pertsona horiei buruzko NAN zenbakia zeukan zerrenda soilik igorri zitzaigula, Parlamen-

tuko talde honek Foru Diputazioaren jardueraren kontrola egiteko bere eginkizun parlamentarioak behar bezala bete ditzan, ondoko galderak egin ditu, idatziz erantzun diezazkioten:

1.- Ba al da beraien NAN zenbakia igorri zaigun pertsonen artean baten bat legegintzaldi honen hasieratik izendapen askeko inolako kargurik –zuzendari nagusi, kontseilarien administrari, lehendakariaren aholkulari, zerbitzuburu, idazkari tekniko...– bete duenik edo betetzen duenik?

Hala baldin bada, gure ustez, eman egin beharko litzaiguke pertsona horien nortasun osoaren berri, horrek ez liokeelako eraginen euren intimitateari.

2.- NAN zenbakia eman zaigun pertsona horietakoren batek al du lan- edo funtzionario-harremanik Nafarroako Gobernuarekin zein enpresa publikoekin?

Hala baldin bada, horien nortasun osoa, bai eta zein departamentu, erakunde autonomo edo enpresatan lan egiten duten ere, esan dakigula nahi dugu.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 19an

Bozeramailea: Joxe Fernando Barrena Arza

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kreditazio-sistemei buruzko galdera

ELENA TORRES MIRANDA FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Elena Torres Miranda foru parlamentari andreak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kreditazio-sistemei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Parlamentuko Erregelamendua-ren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun diezaioten, Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboentzako lan-

bide karrera dela-eta Osasun kontseilariak emandako erantzunari buruz:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legeko 7.4 artikulua ezartzen du ezen prestakuntzako jarduerak baloratzeko Osasun Sistema nazionalaren kreditazio prozedurak hartuko direla kontuan, besteak beste.

Galderak:

1.- Zer kreditazio sistema aurreikusi ditu Gobernuak?

2.- Prestakuntzako jarduerak baloratzeko zer beste sistema aurreikusi ditu Gobernuak?

3.- Profesionalen kreditazioen erregistroa, Gobernuak berak egingen al du giza baliabide eta baliabide tekniko berekiak erabilia?

Iruñean, 2000ko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Eguesko Udalarekin Sarrigurengo ekohiria sortzearen lortutako akordioa betetzeko sistema aldatzerari buruzko galdera

JOSE ANDRES BURGUETE TORRES FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak Eguesko Udalarekin Sarrigurengo ekohiria sortzearen lortutako akordioa betetzeko sistema aldatzerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratik Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés

Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamendua-ren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak aurrera darrai Sarrigurengo ekohiria sortzeko lanetan, non 8.000 milioi pezetako inbertsioa egin eta babes ofizialeko etxebizitzak eraikiko baitira. Proiektu horren oinarrian, Eguesko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko akordio bat dago. Haren bidez, hainbat konpromiso hartu zuen bere gain alde bakoitzak, baina, dirudienez, une honetan aldaketak izan daitezke. Horrenbestez, hauxe jakin nahi da:

1.- Zergatik aldatu du Nafarroako Gobernuak exekuzio sistema –lankidetzatik desjabetzara–,

baldin eta Nafarroako Gobernua lurraren % 80aren jabea bada?

2.- Parte hartu al du Eguesko Udalak exekuzio sistema aldatzeko prozesuan?

3.- Zer mesede egiten dio aldaketak Eguesko Udalari?

4.- Nafarroako Gobernua Eguesko Udalak Burlatako Udalari diru-ordaina eman diezaion ari da sustatzen, Erripagainan aurreikusitako merkataritza gunea jartzea ezetsi zuelako Nafarroako Gobernuak. Zer arrazoi darabil Nafarroako Gobernuak horretarako?

5.- Iragan legegintzaldian Nafarroako Gobernuak eta Eguesko Udalak lortutako akordioa aldatzea dakar neurri horrek?

6.- Ba al du Nafarroako Gobernuak, aipatutakoez gain, Nafarroako Gobernuak eta Eguesko Udalak sinatutako ituneko beste atalen bat aldatzeko asmorik?

Iruñean, 2000ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Herri ondasunak arautzeko egungo sistemari buruzko galdera

CAROLINA CASTILLEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Carolina Castillejo foru parlamentari andreak herri ondasunak arautzeko egungo sistemari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo andreak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaizoten:

Nafarroako herri ondasunen aprobetxamenduak izaera sozial garbia izan du historian zehar, behartsuenen errenten alde egitera bideratu baitira.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen II. kapituluak arautu zuen herri ondasunen aprobetxamendua, hauxe ezarri baitzuen: toki entitateek herri ondasunen produktioa abiarazi, hobetu eta ezin hobeto aprobetxatzen direla zainduko dute.

Ondasunik gehienak nekazaritza-, abeltzaintza- eta oihan-aprobetxamenduak dira, hau da, Nekazaritza Politika Bateratuko programen bidez

Europako Batasunak diruz laguntzeko moduko jarduerak dira.

Nekazaritza Politika Bateratuen araubideak bi aldaketa nabarmen izan ditu 6/1990 Legeak indarra hartu zuenetik hona: 1992koa eta Agenda 2000ren baitan egindakoa.

Europako legeek eragin zuzena dute hala Espainia nola toki eta autonomietan.

Bestalde, gure erkidegoaren garapen sozioekonomikoaren ondorioz, nekazaritza-, abeltzaintza- eta oihan-jarduerak asko aldatu dira azken urteotan, eta halatan, etengabe jaitsi da halako jardueretan soilik, edo halakoetan batez ere, ari den biztanle kopurua.

Horregatik guztiagatik, hurrengo galderak idatziz erantzuteko eskatzen dut:

Gobernuaren ustez, herri ondasunak arautzeko egungo sistemak horien aprobetxamendua zuzen banatzen laguntzen al du?

Ba al du Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko herri ondasunen egoera zein aprobetxamenduari buruzko azterlan-txostenik egiteko asmorik?

Ba al du Gobernuak herri ondasunei buruzko legedia egoera berriari egokitzeko asmorik?

Gobernuaren ustez, bateragarriak al dira egungo legedia eta toki autonomia?

Iruñean, 2000ko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: Carolina Castillejo Hernández

Aurrekontuko dirulaguntzak jaso ez dituzten hezkuntza, osasun eta gizarte ongizate alorreko elkarteei buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, M^a Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentari andreak aurrekontuko dirulaguntzak jaso ez dituzten hezkuntza, osasun eta gizarte ongizate alorreko elkarteei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari María Isabel Arboniés Bermejo andreak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaiten:

Iazko abenduan, Nafarroako 2000ko Aurrekontu orokorreari buruzko Legean Parlamentuan tramitatzean, ANASAPSek (buru-gaixoak), ALCERek (giltzurrun-gaixoak) eta erditze multipleak izan dituzten familien elkarteak aurtengo ekitaldian aurrekontu-lerro berekia izatea lortu zuten.

Aurrekontuak abenduan onesten dira, eta elkarteek urtarrilaren 30erako aurkeztu behar dituzte indarra duen aurrekontu-ekitaldirako programak, baina maiatza heldu da eta elkarte horiek ez dituzte jaso aurrekontuko dirulaguntzak.

Hezkuntza, osasun eta gizarte ongizate alorreko elkarteek behin baino gehiagotan eskatu diote Parlamentuari dirulaguntza horiek bi urterakoak izan daitezela; orobat azpimarratu izan nahi dute zer-nolako kaosa sortzen dien hilabetetako atzerapenak eta programei zein egin beharrekoei aurre egiteko zer aurrekontu duten ez jakiteak.

Bestalde, urtero ikusten dugu nor bere aurrekontu-lerro berekia izaten saiatzen dela, aurrekontu orokorren kargura funts publikoak definitu eta esleituko zaizkion segurtasuna izatearren; izan ere, horietariko gehienak "saski-sailetan" sartuta daudenez, departamentu bakoitzak nahieran banatzen ditu.

ANASAPS elkartearen kasuak, esate baterako, harridura sortzen du. Azaroan 60 milioitik gorako aurrekontua aurkeztu zioten Parlamentuari buru-gaixoen -17.000 dira diagnostikoen arabea- beharriari aurre egiteko; bada, Aurrekontuei buruzko legean 40 milioiko aurrekontu-lerro berekia izan arren, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak 35 milioi eskaini dizkie. Are harrigarriagoa da zenbateko horren barruan kronikoak etxez etxe artatzeko 12 milioi sartzea, zeren Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuaren aurrekontuan zenbateko bereko -12 milioi- aurrekontu-lerro bat baitago, buru-gaixoak artatzera berariaz bideratua. Halatan, paradoxikoa bada ere, 40 milioi horiek 23 baino ez dira berez.

Horregatik guztiatik, hauxe jakin nahi da:

1.- Hezkuntza, osasun eta gizarte ongizate alorreko zer elkarteek ez dituzte jaso -aurrekontu-lerro berekia izan ala ez-, maiatzaren hasieran, 2000ko aurrekontuetako dirulaguntzak?

2.- Nafarroako Aurrekontu Orokorretan aurrekontu-lerro berekia duten elkarteetatik, zeinek jaso dute Aurrekontuei buruzko legean esleitua dutena baino diru gutxiago, edo zeini proposatu zaio halakorik? Denek jaso dute esleitu zaien zenbatekoa Aurrekontuei buruzko legearen bidez?

3.- Zertan oinarritzen da Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentua 2000ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legea ez betetzeko eta ANASAPS elkarteari esateko Parlamentua "erratu egin dela" eta "bere asmoa ez zela" Parlamentuak onetsi eta 2000ko Aurrekontuei buruzko Legean jasotako zuzenketan azaltzen den zenbateko esleitzea?

4.- Etxez etxeko laguntza emateko programaren barruan 80 gaixo kroniko artatzen dira eta gainera itxaron zerrenda bat dago -Nafarroan 5.000 gaixo kroniko baino gehiago dago-. Hasierako aurrekontua uztailan agortuko da. Zer konponbide emanen dio Nafarroako Gobernuak arazo larri horri?

Iruñean, 2000ko maiatzaren 25ean

Foru parlamentaria: María Isabel Arboniés Bermejo

Jateko ohituren nahasketari –anorexia eta bulimia– buruzko galdera

ELENA TORRES MIRANDA FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Elena Torres Miranda foru parlamentari andreak jateko ohituren nahasketari –anorexia eta bulimia– buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Parlamentuko Erregelamendua-ren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun diezaion, jateko ohituren nahasketari –anorexia eta bulimia– buruz:

Orain dela egun batzuk jardunaldi batzuk egin ziren gure erkidegoan; bertan, anorexiari eta buli-

miari buruz jardun zuten: kausak, ondorioak, aurrea hartzea eta arazoaren gorakada.

Egoera horren aurrean, gure erkidegoari buruzko ondoko datuak jakin nahi ditut:

1.- Zenbat gaixo dago diagnostikatuta, edo zenbatek dute jateko ohituren nahasketa, anorexia eta bulimia hain zuzen ere?

2.- Gaixo horietatik, zenbat dira gizonezkoak eta zenbat emakumezkoak? Zer adin dute?

3.- Arazo hori dela-eta, ba al du Osasun Departamentuak jarduera-protokolorik eta berarriazko programarik? hala baldin bada, nola artatzen dira gaixoa horiek? koordinatuta al daude espezialitateak horiei tratamendua emateko?

4.- Aurreikusi al du Osasun Departamentuak aurrea hartzeko programak edo planak egitea eta arzoari aurre egiteko neurri bereziak hartzea? hala baldin bada, zein dira? nola egingen dira?

Iruñean, 2000ko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Gobernuaren argitalpenen fotokonposizio eta filmazio lanen (1, 2, 3, 4 eta 5. sortak) esleipenari buruzko galdera

JOSE ANDRES BURGUETE TORRES FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuaren argitalpenen fotokonposizio eta filmazio lanen (1, 2, 3, 4 eta 5. sortak) esleipenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Lehendakaritzako idazkari nagusiak, 1999ko abenduaren 13ko Ebazpenaren bidez, Paginación Informática, S.L. enpresari esleitu zizkion Nafarroako Gobernuaren 2000ko argitalpenen fotokonposizio eta filmazio lanak (1, 2, 3, 4 eta 5. sortak). Hori dela-eta, hauxe jakin nahi da:

1.- Zer irizpide objektibo ezarri ditu Departamentuak ebazpenean aipatzen den lehiaketara aurkeztu ziren enpresen baliospena egiteko?

2.- Zer enpresak jo dute aipatu esleipenetara?

3.- Zenbat puntu eman zaio enpresa bakoitzari kontzeptu bakoitzarengatik?

4.- Zer arrazoi darabil Departamentuak lan horiek aipatu enpresari esleitzeko?

Iruñean, 2000ko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Altsasuko Galdan, SA enpresak isuritako ke toxikoei buruzko galdera

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Altsasuko Galdan, SA enpresak isuritako ke toxikoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Altsasuko zinegotzi batek Galdan, SA enpresaren aurkako salaketa jarri zuen iragan maiatzaren 15ean udaltzaingoan, ke handia botatzeagatik. Isurketa haien usaina nabarmena zen, eta azkura eragiten zien ezterrian Ibarra, Geltokia eta Amezitia auzoetako bizilagunei.

Gertakaria ez da ohiz kanpoko, sarritan gertatzen baita 20:30 eta 23:00ak bitarte. Iragan 15eko salaketa eragin zuena, hain zuzen ere, 22:45ean antzeman zen.

Izan ere, otsailean eta martxoan ere aurkeztu ziren salaketak atmosferara arauz kanpo ihes egindako keak zirela-eta –jaulkipen sistemak gaizki funtzionatzeari zor zaizkio ustez ihes horiek–. Salaketa horien ondorioz, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko Ingurugiro Kalitatearen Zerbitzuak ikuskapenak egin zituen, isuritako keak fabrika inguruko auzu-

neetako bizilagunek arnasteko moduko metal pisu eta toxikoen hondakinak izan zitzakeelakoan.

Iragazkiekin izandako arazoak aipatu zituen enpresak, bai eta berehala konponduko zituztela ere; halere, betako bizilagunek orduan salatu zuten, atmosferara kontrolik gabe egindako isurketek bere horretan segitu zuten, batez ere gaez, horrek ingurumenarentzat eta pertsonen osasunarentzat dakarren arriskuarekin.

Gogoratu egin beharra dago enpresa horren beraren aurka orain dela hiru urte –artean “Aluminios Alzania, SA” deitzen zen– salaketa bat jarri zela, zepa-metaketen ondorioz lurrazpira egindako iragazpen toxikoak zirela eta.

Horrenbestez, eta orain aurkeztutako salaketak ikusita, hauxe jakin nahi dugu:

– Zer neurri hartu ditu, edo hartuko ditu, Nafarroako Gobernuak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Galdan,

SA enpresak atmosferara botatako ke toxikoak direla-eta pertsonen osasuna babestearren?

– Ireki al dute zehapen espedienterik Nafarroako Gobernuak osasun edo ingurumen arduradunek Galdan, SA enpresak atmosferara botatako ke toxikoak direla-eta? Hala baldin bada, zein fasetan daude?

– Orain aurkeztutako salaketak ikusita, ba al du Nafarroako Gobernuak Galdan, SA enpresak atmosferara botatako ke toxikoak direla-eta egiten diren ikuskapenak areagotzeko asmorik?

– Zer gai toxiko –ingurumenari zein pertsonen osasunari kalte egin diezaieketenak– eta zein kontzentrazio mailatan antzeman dira Nafarroako Gobernuak Galdan, SA enpresan eginiko ikuskapenetan?

Iruñean, 2000ko maiatzaren 26an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 54 eta 75. artikulua aldatzeko proposamena

ERREGELAMENDUKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Erregelamenduko Batzordeak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 54 eta 75. artikulua aldatzeko proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritako betez. Proposamen hori, 2000ko martxoaren 29ko 27 zenbakiko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz ez da zuzenketarik mantendu, ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

IRIZPENA

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 54 eta 75. artikulua aldatzeko proposamena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Parlamentuaren iritziz, herritarrek, beren ordezkarien bitartez, gai publikoetan parte hartzeko eskubidea dute, Espainiako Konstituzioaren 23.1 artikulua aitortzen duen bezala. Aipatu artikulua arabera, herritarren ordezkarien lana publikoa izanen da, eta aparteko arrazoiengatik baizik ezin izanen da publikotasun hori mugatu; izan ere, hala eginez gero, ordezkariak eta ordezkariak gizarte demokratikoaren jokaeretan oinarritutako den harreman baten aukera kentzen baitaie.

Beraz, Parlamentuko batzorde batera –batzorde arrunta nahiz berezia izan– komunikabideak ez joateko aukerak apartekoa behar du izan, eta isilpeko bilkuretako kasu eta gaietara mugatu behar da, Erregelamenduaren 75 eta 76. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aukera ematen du komunikabideak Biltzarreko Osoko Bilkura eta Batzorde Arrunten bilkuretara joateko, baina ez du berariaz aukera ematen haiek batzorde berezietara joateko, bilera proposatzen dutenek eta Biltzarreko zuzendaritza organoek komunikabideentzat bilera itxia izatea nahi ez badute.

Iritzi publikoak jakinmin handia du batzorde berezi horietan lantzen diren gaien inguruan; beraz, komenigarria da, gure iritziz, Biltzarreko Erregelamendua aldatu eta hartan berariaz jasotzea komunikabideak batzorde berezietako bilkuretara sartzeko aukera.

Aipatu bezala Erregelamendua aldatuz gero, egokia dirudi, bestalde, Erregelamenduaren testu berrian jasotzea gainerako foru parlamentariak ere batzorde berezien bilkuretara joaten ahalko direla.

1. artikulua. 54.2 artikulua testu berria:

“2. Ondokoak joaten ahalko dira Batzorde Berezien bilkuretara:

a) Hizpidea eta botoa izanik, Batzordea osatzen duten foru parlamentariak edo haien ordezkariak, Erregelamendu honetan ezarritakoarekin bat bere izaera egiaztatu dutenak.

b) Hizpiderik eta botorik gabe, gainerako foru parlamentariak eta gizarte-komunikabideen ordezkariak, nortasuna behar bezala egiaztatua, bilkura, Erregelamendu honetako 75 eta 76. artikuluetan ezarritakoarekin bat, isilpekotzat jotzen den kasuetan izan ezik. Batzorde Berezien aurreko agerraldiak arautuko dira Batzorde arruntetarako eta lan bileretarako araututakoari jarraituz.”

2. artikulua. 75. artikuluko 2. idatz-zatiko lehenengo lerrokada ordeztu da. Honela gelditzen da:

“Batzordeen bilkurak ez dira jendaurrekoak izango. Halarik ere, gizarte-komunikabideen

ordezkariak, nortasuna behar bezala egiaztatuta, ohiko batzordeetara joaten ahalko dira, bilkura horiek isilpekoak direnean izan ezik.

Batzorde berezietara ere joaten ahalko dira, Erregelamendu honetako 54. artikulua xedaturi-

koari jarraituz.”

Azken xedapena. Aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko XIII. tituluko I. kapitulua aldatzeko proposamena

ERREGELAMENDUKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Erregelamenduko Batzordeak Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko XIII. tituluko I. kapitulua aldatzeko proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritako betez. Proposamen hori, 2000ko martxoaren 29ko 27 zenbakiko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz ez da zuzenketarik mantendu, ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

IRIZPENA

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko XIII. tituluko I. kapitulua aldatzeko proposamena

ZIOEN AZALPENA

Abuztuaren 10eko 13/1982 Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 11. artikulua adierazten du Parlamentuaren eginkizunetako bat dela Nafarroako Gobernuaren jarduna sustatu eta kontrolatzea. Eginkizun honek jaso duen interpretazioa da legegilearen nahia, Parlamentuak erakundearen sarean toki nagusia izan dezan, adierazten duela; hori dela-eta, komenigarria dirudi Nafarroako Parlamentuaren egungo Erregelamenduak “sustapen eta kontrol” eginkizunak betetzeko proposatzen dituen tresnak gehitzea.

Beste biltzar batzuetako erregelamenduetan, helburu honetarako tresna erabilienetako bat da gobernu jardunaren gaineko eztabaida orokorrak egitea, inbestidurakoak eta aurrekontuei buruzko urterokoez gain, Gobernuak eta oposizioak

beraien aukera alternatiboak azaldu ahal izan diezazkieten iritzi publikoari. Dударik gabe, bide horrek asko laguntzen dio Parlamentuaren eta gizartearen arteko komunikazioari.

Arrazoi horietan oinarrituta, Nafarroako Parlamentuaren iritzi Biltzarraren egungo Erregelamendua aldatu beharra dago, eta berariaz sartu behar da politika orokorrari buruko eztabaida bat nahitaez egitea, urtean behin. Horrek bi xede ditu; bata, Exekutiboaren lana kontrolatzeko bideak gehitzea, eta bestea, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitatearen bizitza politikoan duen protagonismo politikoa areagotzea.

1995eko otsailaren 2ko Nafarroako Parlamentuko XIII. tituluaren I. kapituluaren amaieran artikulua berri bat onesten da. Horrela geldituko da:

“**Artikulu berria.** 1.-Legegintza-urtearen lehendabiziko bilkuraldiaren hasieran, Gobernuko lehendakariaren inbestidura eztabaida egiten denean edo bilkuraldi horretan hauteskundeak egin behar direnean izan ezik, Osoko Bilkura berezia egingen da Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida bat egiteko.

Eztabaidarako deialdia egin aurretik, irailaren lehenbiziko hamabost egun baliadunen barruan, Nafarroako Gobernuak Parlamentuari igorri ahal izanen dio Gobernuaren politika orokorrari eta Komunitatearen egoerari buruzko komunikazio bat, Osoko Bilkura berezi horretan eztabaida dadin.

2.- Oro har, Erregelamendu honetako IV. kapituluko V. tituluaren ezarritako arauak aplikatuko dira; betiere, ondoko letretan ezarritakoari begiratu zaio:

a) Eztabaida Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren hitzaldiarekin hasiko da, denbora mugarik gabe.

Azalpen hori amaiturik, Lehendakariak bilkura aldi baterako etengo du, Parlamentuko taldeek hitzaldia aztertu ahal izan dezaten.

b) Bilkuraldia berriz hasten denean, Parlamentuko talde guztiek, beren ordezkarien bitartez, parte hartu ahal izango dute. Parlamentuko taldeek parte hartzeko hurrenkera kide kopuruaren arabera ezarriko da; ekimena aurkeztu duten Parlamentuko taldeetako ordezkariak hasiko dira, eta, gero, kide gutxien dituzten ordezkariak hitz egingo dute; bukaeran kide gehien dituen Parlamentuko taldeko ordezkariak hitz egingo du.

c) Aurkako manurik ez badago, aurreko letrako parte-hartzeak ez dute hogeita minutu baino gehiago iraungo.

d) Behin eskatu duten Parlamentuko talde guztiek parte hartu dutenean, Gobernuko Lehendakariak berriz parte hartu ahal izango du.

e) Lehendakariak parte hartu ondoren, erantzuteko txanda bat, gehienez ere 10 minutukoa, eskaini ahal izango zaie Parlamentuko talde guztiei, hain zuzen ere artikuluko honetako b) letraren ezarritako hurrenkeran. Eztabaida Gobernuko Lehendakariaren parte-hartzearekin bukatuko da.

f) Eztabaida bukatu denean, Biltzarreko Lehendakariak epe bat zabalduko du, zeinean Parlamentuko taldeek erabaki proposamenak aurkeztuko dizkieten Mahaiari; erabaki proposamen horietan aurrekontu-hitzarmenak baldin badaude, beharrezkoa izango da Gobernuko baieztoko iritzia. Mahaiak eztabaidaren helburuarekin bat datozen proposamenak onartuko ditu; haien eztabaida eta bozketa Erregelamenduko 196. artikuluko xedatutakoari jarraituz egingen da.”

Azken xedapena. Erreforma honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--